

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2366

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 13koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak dekretu-proiektu bat landu du, zeinaren bidez arautzen baitira Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen osaera eta funtzionamendua; proiektu hori Xedapen orokorrak lantzeari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehazten duenaren arabera izapidetu behar da.

Aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, entzunaldiaren izapidea bete behar da herritarren legezko eskubideei eta interesei eragiten dieten xedapen orokorrekin, eta, xedapenen izaerak hala gomendatzen duenean, informazioa jendurrean jarriko da.

Horrenbestez, Xedapen orokorrak lantzeari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikulua arabera, proiektu hau jakinarazten da; horretarako, 20 egun balioduneko epea nahikoa dela uste da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legearen 4. artikuluetan xedatuarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendurrean erakustea Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa-ren iragarki-taulan (euskadi.eus) eta Kontsumobide-Euskal Kontsumoko Euskal Institutuan (Done Jakue hiribidea 11, 01002, Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
NORA ABETE GARCÍA.